

## Proiektuaren deskribapena:

Inoiz gertatu al zaizue ordenagailura paperean idatzitako zerbait pasatzerakoan modu deserosoan aritzea? Egoera hau ezerosoa egiten da, lepoa alde batetik bestera mugitu behar izaten delako eta hau kaltegarria izan daitekeelako. Lepoa babesteaz gain, beste erabilera batzuk ditu. Hala nola, mahai bat eskueran ez dugunean, garraio publikoan goazenean adibidez, lagungarria da orria nonbait uzteko tokirik ez dugulako.

Guk arazo honentzako soluzio bat bilatu dugu. Eseki izeneko tresna hau, bi pintzez eta burdin moldagarri batez osatuta dago. Pintza bat ordenagailuari erantsita doa eta bestea berriz idatzien paperari.